

Literatura

Inon ez, inoiz ez
Iban Zaldúa.

Elkar, 2014



Joseba deseraikiz

INON EZ, INOIZ EZ liburuarekin Zalduak hustu dela dio. Bertan idatzi baititu ordura arte idazteko zituen guztiak. Hala ere, aspaldi irakurtzen dugunok bada-kigu berehala sortuko zaizkiola ipuin gehiago betau-rrekoen beste aldean, belarri-zuloetan edo ezpain-zokoetan. Izan ere hala agintzen digu liburuaren amaierako “azken ohar gisa” atalean: ipuinak idaz-ten jarraituko duela diosku eta.

Inon ez, inoiz ez fikzioaren lekua eta denbora dira, bere hitzetan kontrazalean gogoraratzen digunez. Eta azalean dago txanponaren beste aldea, erreali-tatea, fikzioa idazteko behar den materiala eskain-tzen diona idazleari: “idazleak daukan material bakarra ezagutzen duena da (Truman Capote)”. Eguneroko agertoki edo pertsonaiak azalduko diz-kigu zenbait ipuinetan eta fantasia sartuko da zirri-kituren batetik kontatzen ari dena bestelako kolo-retan margotzeko. Zalduak ohi duen bezala. Eta fantasiarekin batera ironia; heriotza, harremanak, lana... zeharkako irribarrez eskainiko dizkiguna, bere pertsonaia baten esanetan: “ironia duk egun-go gizartearen zementua”.

Ironiaz ere jorratzen du “modako” gai bat. Orain arte esplizituki landu ez duen generoarena. Ipuin bateko elkarrietzeta batean hurrengo irakurri ahal diogu: “—Eta generoarena? Hi ez haiz emakumea! Hori interesgarriarena egiteko ipini dun! (...) —Ez al daude mota honetako kontuak puri-purian kritiko literarioen artean...?”. Baina kritiko literario honi, botatako eskularrua lurretik hartuz, gehiago intere-satu zaio beste ipuin batzuetan nola eraikitzen duen genero identitatea. Feminitatea hilekoarekin lotzen

baitu eta maskulinitatea bizarra egiteko aparrarekin. Horra generotik aztertzeke moduko bi datu.

Inon ez eta inoiz ez atalen artean, *Hemen, orain* atala dugu. Bertan Zalduak “la cosa” deitu izan duenari buruz hitz egiten du, “euskal gatazka” ere deitu izan denari buruz. Baina “las cosas” izan zitekeen, euskal gatazkarekin batera gerra zibila ere badelako atal honetan agertzen diren ipuinen gaia. Euskal Herri-ko historia hurbilari begirada botatzen dio liburu honen muinean, memoria ariketa eginez literatura-tik. “Euskal arimaren barrunbe hondogabeen natu-ra misterioitsua” ikuspegi esentzialista bazter utziz, baina gurean izan duen eraginari muzin egin gabe, eta “existitu ez den iragan mitiko bat eraikitzeke alferrikako ahaleginei” itzuri eginez “errelatoaren” bere bertsioa ematen du fikziotik bere alea jarritz.

Bere aurreko liburuko gai nagusia izan zen litera-tura eta idazlearen obsesioak ere agertuko zaizkigu han-hemenka. “Idazleak ingurukoengandik istorio-ak jasotzeko eta artearen aldarean ipintzeko eskubi-dea eta betebeharra du” irakurriko dugu. “Konta-tzeko modu baten bila aritu haiz. Hori dun idazle guztiek, putreen moduan, egiten duzuen” esango dio pertsonaia batek protagonistari ipuin batean. Eta horrek Woody Allenen *Deconstructing Harry* eka-rriko digu gogora. Eta idazleak fikzioa egiteko errealtateari zukua nola ateratzen dion pentsaraziko digu; polemika metalitera-rio horren metxa berriro piztuz eta kri-tikatxo honi izenburua emanez. ■



Amaia Alvarez Uria

1 irakurri

2 hautatu

3 erabili

4 eman iritzia